

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Alde batetik enpresaren bazkideak eta bestaldetik enpresaren hornitzaileak aipatuko dira.

Enpresaren sortzaileak 3 bazkide dira; Unai Callejo, Mikel Feijoo eta David Sánchez. Hasiera batean enpresan partaidetza berdina izango dute, hau da, kapitalaren %33,33a.

-Unai enpresaren web-orriaz arduratuko da, informatikan oso aditua delako.

-Mikel hornitzaileekin harremanetan jartzeko ardura izango du, negoziatzeko abilezia handia baitu du.

-David, dirusarreretaz eta kostuetaz arduratuko da, enpresaren kontabilitatea, eta finantzazioa kudeatuz.

Enpresa inbertsore bat topatzen saiatuko da, enpresa martxan jartzeko beharrezkoa den finantziarioa lortzeko. Honen baldintzak negoziatu egingo dira. Hasiera baten behintzat bazkideak ez dira prest egongo inbertsore honi enpresaren partaidetza bat emateko, eurek bakarrik eraman nahi bait dute enpresa aurrera. Bazkideek inbertsore honi dibidenduen portzentai bat proposatuko diete, inbertsorak jarritako finantziarioaren arabera, baina ez enpresaren portzentai bat. Hori guztia negoziatu beharko dute.

Bestalde, enpresa honek hornitzaileak behar ditu, erlojuen pieza lortzeko, DUMek ez duelako erlojuaren ekoizpen osoa egiteko gaitasuna.

Horretarako, alde batetik:

- Valentzian kokatuta dagoen “*MuñozRelojeros*-ekin”, harremanetan jarriko gara eta erlojuaren pieza mekanikoak hornituko dizkigu.
- Bestalde Erresuma Batuan kokatuta dagoen “*Meadows & Passmore*” enpresarekin harremanetan jarriko gara eta hauek, besteak beste, erlojuaren esfera berezia (kutxa) hornituko digu.

Bukatzeko, erloju digitala denez, pieza digitalak beharko ditugu, hau da, teknologikoak. Bi aukera ditugu:

- Industria teknologikoa kontrolatzen duen enpresa batekin aliantza egitea; Samsung-ekin, eta Xiaomi-rekin, haiek sortutako pieza erabili ahal izateko.
- Euskal Herrian kokatuta dauden “*MOD PC San Mamés*” eta “*IRUBISA*” enpresak gure gertuko hornitzaileak izango dira.



